

ETB-2?

ETB-2 edo erdal-ETB. Bai? edo eta zertarako?

Arrazoiren batzuk izango dira... Arrazoiak edozertarako eta beti izan ohi dira.

Sarri esaten denez... Euskal Herriko erdeldunek badute horretarako eskubiderik...bail; eta euskaldunek ez al dute eskubiderik beste gauza askotarako? eta nork beterazten ditu?... Baina beste aldeko eskubideak (erdaldunenak) direnean, nahita-nahiez, derrigorrez bete behar dira... betikoa!

Beste arrazoi edo argudio hau ere eman izan da ETB-2-ren alde: erdal-munduari euskal-ikuspegiz emandako informazio eta berriak oso komenigarri zaizkiola, bide batez Espainiako TVE-ri jokia irabaziz, konpetentzia eginez; euskal-kultura azaltzeko ere egoki datorrela etab. Bai argudio ederrak han hodeietatik gora bizi diranentzat!...

Eta Bilboko Euskadi (erdal-) irratiaarena gertatzen bazaio ETB-2-ri zer? Irrati hau bezala erdal-kutsu eta giro arrotzean murgilduko balitz zer? Orduan erdal-ETB-e Euskadiren onerako izango ote litzateke?

Baina euskararen aldetik ikusirik batez ere, argudio guztiak erdal-ETBren aurkakoak dira.

Gure politika-gizonen ikuspuntuak zeintzuk dira?

Euskararen ikuspuntua mihiean bakarrik eta ez eginkizune-
tan?

ETB-2 normaltasunean sar dadinean, ez ote da ETB-ren kaltetan izango? Ez ote dio kompetentziarik egingo? Ume ino-
zoenak ere ez al daki kompetentzia horretan (entzulegoak eta di-
ruak aginduz) ziur-ziur euskara eta ETB izango direla galtzaile
bakarrak?

ETB-2 (erdal telebista) ETB-ren heriotzea izango dena ez
dakien inozorik ba ote da?

Adibidez, bietatik zeinek izango du lehentasuna Athletic eta
Realak edo eta hauetarikoren batek Osasunaren aurka jokatzeko
dutenean? Zein kanaletatik emango litzateke partidu hori? Edo
eta munduko futbol-txapelketa ematen diranean? Edo Olinpia-
dak direnean? Edo Eurovisioan sartuz, Europako programak
ematean? ETB ala ETB-2 (erdal telebista)?

Itsuek ere «ikusten» dute eta badakite, entzule aldetik ge-
hiengoak eta propagandarako diru-emailerik gehien ere ETB-
2an izango liratekeela, euskal-ikuspuntu guztiak pikotara botaz!

Eta hori gerta dadinean, zertarako ETB? Euskal testigantza
emateko bakarrik ala? Gauza on eta interesgarriak emanda ere,
Euskal Telebista guztia beharrean ibiliko da. Eta ETB-2 indartu
dadinean? Ikusten ez duenak, ikusi nahi ez duelako izan behar!

Bizitzako legeak zera eskatzen du: gauza bat zaindu nahi
bada, beste batzuri uko egin beharra dagoela, bestela heriotzea
dator eta. Hori gerta ez dadin, adorea izan behar dugu beste ba-
tzuri, hauek gauza on eta interesgarriak izan arren, uko egiteko.
Adorea! Nork bere mugatasuna, denera ezin heldu dela ikusiz,
baina bizitza zainduz! Adorea!

Baina ikuspunturik ba al dago?

ETB-2k badu izateko eskubidea! Nork ukatu!

Baina ETB itxurazko bat izateko eskubiderik ez al dugu

euskaldunok? Izango ez dugu, ba!

Editorial hau hor geratuko da datozen urteetarako testigantza bezala.

EDITORIALA

5